

MARTXOAK 10 (Osteguna)

NON: Durangoko Kafe antzokian

TENOREA: 18:00etan

Egoitz Aizpuru: Gai-jartzailea emagin?

Zenbateraino markatzen du gaiaren ikuspegiak eta tonuak ondorengo bertsoaldia?

Aurkezle eta moderatzaile: Onintza Enbeita

Gorbata ala amantala erantzita... andre-gizonak bertsoan biluzik?

Ibon Arrizabalaga de Mingo

Zertarako egin bertsoan? Hainbat buru, hainbat aburu egongo dira honetan ere. Zuetako batzuk bertsoan egiten baduzue zerbait aldatu nahian, hor kanpoan ala norbere barruan zerbait eragin edo irauli nahian, zuentzako ari naiz hizketan. Ez dizuet esango nola egin bertsoan, horretan zuek zarete maisu. Ordea, nik ikasi dudana hitz egingo dizuet, eta zerbait baliagarri egiten bazaizue, hari-muturren bati tiratzeko gogoz geratzen bazarete, ni pozik. Gizon bezala arituko natzaizue hizketan, eta bereziki gizonei zuzenduta doaz honako nire hitz hauek.

Bertsolaritzan (gainontzeko jarduera publikoetan bezalaxe), inertziak, ohiko genero rolak indartu eta iraunarazten dira. Posible al da bertsoen sormen-prozesuan estereotipoei ihes egitea? Bertso-saioetan bertsolariak bat-batean aritzen dira, eta publikoak ere bat-batekotasun handiagoz erantzuten du, txalo ala txistu eginez. Horrek ez du tarte handirik uzten ohiko baloreak ez direnak hauspotzeko... Horrek ze esan nahi du, bertsolaritza beti joango dela jendartearen baloreen atzetik? Ala posible da jendartearen aurretik ibiltzea, harra bategatik baino ez bada ere? Posible al da rolak biluztuta gaiak jartzea edo bertsoak kantatzea? Eta bertso horiek txalotzea?

Kokatzeko, goazen generoari dagokionez, jendarteari argazkia egitera. Ia denentzat, generoa¹ hitz arrotza da, asko erabiltzen den arren ondo ulertzen ez dena, dena eta ezer ez esateko erabiltzen dena. Hein berean, generoari dagozkion problematikak ez dira gai sozialak, apurka-apurka hori aldatzen doan arren. Oro har, gehiengoak “naturaltasunez” bizi ditu andre-gizonen arteko banaketa eta desberdintasunak. Egunerokotasunean, ez da hain erraza ikusten eredu bikoitz horrek zer duen txarretik...

Gizonak: soldatapeko lana, aisia, lehia, arrakasta, protagonismoa, espazio publikoa, boterea, sexu-grina, indarkeria; buzoa, txandala, gorbata.

Emakumeak: lana eta lana (batean soldata txikia, bestean batere ez), besteen zaintza, menpekotasuna, ikusezinak izatea, beirazko sabaia, emozioak, espazio pribatua, edertasuna, estetika, sexu-objektua, manipulazioa; makilajea, minigona, amantala.

Eredua muturrera iristen denean soilik gaitzesten dugu ia: erailketa sexistak gertatzen direnean. Muturrera eramaten ez den artean, irudi luke banaketa hau ez zaigula arrotza eta bidegabea egiten. Hain ohituta gaude, ez dugula ikusten zer galtzen dugun. Zer galtzen dugu ba? Erraza da ikustea emakumeek galtzen dutela, haiei bai, komeni zaie gurekin parekatzea; baina guk, gizonok, zer dugu irabazteko berdintasunarekin? Zer da ba berdintasuna?

Orain artean, gizonon menderakuntzak gidatu du historia: beste gizonak menperatu ditugu, emakumeak, adin txikikoak, beste herriak, eta baita natura bera ere. Berdintasuna ez da, emakumeak ere horretara iristea. Niretzat, berdintasuna da zapalketekin amaitzea: pertsonak ez sailkatzea sexuaren ala beste ezaugarrien arabera, eta guztiok talde bereko kide izatera itzultzea. Pertsona (ezberdin) garelako gara berdinak; eskubide eta aukera berberak merezi ditugu.

Sexismoak jendearen batasuna apurtzen du. Jendetasuna bitan zatitzen du, giza-

¹ Generoa: maskulino/femenino, alegia, egokitu zaigun sexu biologikoari (arra/emea) unean-uneko jendarteak egozten dizkion ezaugarrien multzoa. Ar ala eme jaio egiten garen arren, gizon ala emakume izatea, kultura bakoitzean eta garai bakoitzean aldatzen den zerbait da, ikasi, geure egin eta transmititu egiten duguna.

ezaugarrien erdia batzuen monopolio balitz bezala ezarriz, eta beste erdia, besteena. Horrela, sekula “gizon perfektua” izatera iritsiko bagina ere, Urrezko Gorbata saria jasoko bagenu ere, gizatasunaren %50a besterik ez genuke atzitu... Gainontzekoa emakumeei baitagokie: sentiberatasuna, emozioak, empatia, laguntasuna, musikaltasuna, erritmo ziklikoak, naturarekin bat egitea, etab.

Gizonoi egokitu zaigun rola pagotxa balitz, zoriontsu ginatke. Baina ez gara. Lan gehiegi egiten dugu, gehiegi erre eta edan, azkarregi eta biziak arriskuan jarriz gidatzen dugu, ez dakigu maite zaitut esaten (zenbaitetan ez dakigu maitatzeko gai ote garen ere), eta ez ditugu ingurukoak nahi bezain ondo tratatzen, ez dakigu gaixotu zaigun amarekin zer egin, negar egiten ahaztu zaigu, eta ia-ia barre egiten ere bai... Diruak eta botereak zoriontasuna berekin balekarte, boteretsuak eta aberatsak ez lirateke ibiliko dabiltzan moduan, harrapari aseezinen gisa. Izan ere, zoriontsu denak ez du beste ezer behar...

Andre-gizonok etxe berekoak gara. Senideak. Batzen gaituena askoz gehiago da bereizten gaituena baino. Bai, hori ikusteko, komeni da gorbatak eta amantalak biluztea. Ez da batere erraza haurtxoak neska ala mutiko diren bereiztea, ezta? Horregatik jantzen ditugu arrosaz edo urdinez, belarritakoak jarri ala ez, mutilen ala nesken izenak jarri. Baina bizitza osoan zehar, %90etik gorako berdintasunak izaten jarraitzen dugu.

Guztiok gara desberdinak, eta guztiok gara %100 gizaki. Baina desberdintasunak alde (diferentzia) bilakatzen dituzte sexismoak, arrazakeriak, klasismoak, homofobiak... Izaki bakar eta errepikaezin egiten gaituzten %5a diren ezaugarri horiek, arauak eta hierarkiak ezartzeko baliatzen dira; mailakatzeko, batzuk besteen azpitik ala gainetik jartzeko.

Horrela dago jendartea. Eta jendarte horretan garatu da ezagutzen dugun bertsolaritza ere: bertsolariak, gai-jartzaileak, publikoa... Hau horrela dela onartuta, zer egin oholtzan edo bertso-afarian?

Hamaika bertsolarik erakutsi digute jada: posible da etxeko-lanak eginda, saioetan

esan nahi den horretatik gertuago egotea. Norberetik kantatzeak ez du esan nahi fikziorik ez egitea (gure bertsogintzan ia ezinbestekoa da fikzioa), baizik eta esateko dugun hori esatea. Parean dugun entzuleria ez bada gure uste berekoa, moduak topatzea galderak egiteko, zalantzak planteatzeko... Kantatu nahi nukeena kantatu dut? Ala entzun nahi zutena eman diet, eta kito?

Gizonok errudun sentiarazten gaituzte: gu gara munduko gaitz guztien erantzuleak, seinalatuak. Zapaltzaileak omen gara, gaiztoak, ergelak, bortitzak... Ze kantatu behar dugu orduan "guretik"? Nola sentitzen gara rol horretan?

Guri lodi, burusoil edo mozkor esatea zilegi da, baina ezin zaio berdin erantzun emakumezko gure kanta-kideari. Orduan?

Nola biluztu dezakegu gorbata? Nola jantzi betaurreko moreak? Ba al dakigu gizonok umiltasunetik kantatzen? Eta emakumeen harrotasuna gure aurkako eraso edo probokaziotzat ez hartzen?

Umorea egin daiteke inor mindu gabe? Hasteko, ez egin ahulenez. Egin barre boteretsuez. Egin barre norbere buruaz: gure gorbataz, gure oro-jakituriak, gure tinkotasunaz eta burugogorkeriaz, beti arrazoia eduki beharraz, gure matxista ezkutuz... edota zeinen gaizki kantatzen dugunaz! Umoreak estereotipoak behar ditu, baina gaur egun jada ohiko estereotipoez gain, baditugu bestelako erreferenteak ere, ate berriak zabaltzen dizkigutenak: bikote eta familia eredu berriak, sexu orientazio eta desiren aniztasuna, lanbide eta kiroletan ohiko genero-mugak gainditzen...

Ez dakit posible den biluzik kantatzea, baina gorbata-amantalak kentzeak ez digu kalterik egingo. Hasteko, hurbilduko gaitu. Etxekoak gara. Eta lagunduko du mundu bidezkoago baterantz kantatzen. Ez da gutxi.